

## ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEAREN KONTRATAZIO BATZORDEAREN AKTA

Bilbon, 2019ko azaroaren 7an

Idazkariak aurretiaz egindako deialdiari jarraiki, 2019ko urriaren 22ko datarekin, ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEAREN (EEE) Kontratazio Batzordea bildu da, eta bertan honako kide hauek izan dira:

### **BATZORDEKIDEAK**

Enrique Monasterio Beñaran jauna, EEEko Garapen eta Berrikuntzako zuzendaria eta Kontratazio Batzordearen Presidente.

Javier Marques Gonzalez jauna, EEEko zuzendari teknikoa.

Rosa Madina Romero andrea, EEEko Ekonomia-Finantzako zuzendaria.

Álvaro Colón Barriocanal jauna, EEEko Idazkari Nagusia.

### **IDAZKARIA EZ BATZORDEKIDEA**

Iker Alaña Zorrilla jauna, EEEko Kontratazio Ataleko arduraduna.

Gai-zerrenda jorratzeko, honako eduki hauen arabera:

1. *Kontratazio prozeduraren hasieraren memoria justifikagarria eta horri lotutako agiriak.*
  - *EEP/19/001. Energiaren Euskal Ituna egiteko laguntza teknikoaren kontratua.*
  - *DIRTEC/19/003. Arabako Parke Teknologikoan biomasan oinarritutako energia termikoa sortzeko sistema eta bero-sarea jartzeko bideragarritasun teknikoaren azterketa egiteko kontratua.*
  - *ERG/19/002. EAEko itsas hondoaren geologiaren ikerketaren zerbitzu kontratua.*
2. *Kontratu txikien zerrenda.*
3. *Beste gai batzuk.*
4. *Bileraren akta irakurtzea eta, hala badagokio, onartzea.*

1. **Kontratazio prozeduraren hasieraren memoria justifikagarria eta horri lotutako agiriak.**

Ondoren adieraziko diren espedienteetan, batzordekideek dagokion kontratazio espedienteari lotutako kontratuaren arduradunak aurkeztutako memoria justifikagarria eta honi dagokion Klausula Administratibo Berezien Agiriak (KABA) eta Zehaztapan Tekniko Partikularrenak aztertu dituzte. Batzordekideek egiaztatzen dute bi dokumentu horiek, kontratazio espedienterako beharrezkoak direnak, SPKLen aurreikusten diren baldintzak betez egin direla, eta kontratazio organoari bidaliko zaizkio, SPKLen 117. artikulua aplikazioari jarraituz, egokitzen jotzen baldin badu, ebazpen arrazoitua eman dezan, kontratazio espedienteak onartuz eta lizitazio prozeduraren hasierari ekinez:

- *EEP/19/001. Energiaren Euskal Ituna egiteko laguntza teknikoaren kontratua.*
- *ERG/19/002. EAEko itsas hondoaren geologiaren ikerketaren zerbitzu kontratua.*

Ondoren adieraziko den espedienteari buruz, kontratua sustatu duen Sailaren eskariz, batzordekideek adosten dute azterketa hurrengo Kontratazio Batzordera atzeratzea, ez delako Baldintza Teknikoen Pleguaren azken bertsioa eta aldaketak egitera ekingo zaio.

- *DIRTEC/19/003. Arabako Parke Teknologikoan biomasan oinarritutako energia termikoa sortzeko sistema eta bero-sarea jartzeko bideragarritasun teknikoaren azterketa egiteko kontratua.*

**2. Kontratu txikien zerrenda.**

Batzordekideei EEEk esleitutako kontratu txikien zerrendaren berri eman zaie, Kontratazio Batzorde honen azken bileratik hona egindakoak, hain zuzen ere.

**3. Beste gai batzuk.**

EEE Taldeko Enpresa, Sail eta Atal ezberdinei 2020. Urteko Kontratazioaren Urteko Plana egiteko epea bukatu zaiela adierazten da.

Oraindik ez dira Kontratazioaren Urteko Plan guztiak jaso, hortaz, berriz ere jakinaraziko zaie agiri hori lehen bait lehen aurkezteko premia.

**4. Bileraren akta irakurtzea eta, hala badagokio, onartzea.**

Bileraren akta idazteari ekin zaio eta irakurri ondoren, aho batez izan da onartua.

Bilera amaïtu eta gero, akta hau sinatzeko eman zaie, eta bertan EEE ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEko Kontratazio Batzordeko presidentek eta idazkariak izenpetu dute.

Enrique Monasterio Beñaran jn.  
Kontratazio Batzordeko presidentea

Iker Alaña Zorrilla jn.  
Kontratazio Batzordeko idazkaria